

AITZINA

Editora: Fermin Munariz. Koordintzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruña. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

NORANTZA

Jokin Azkue HABE-ko LEHENDAKARIA

«Habenet, helduen euskalduntzerako sarea da»

Euskararen irakaskuntzaren kalitatea zaindu eta hobetzeko tresna gisa sortu da Habenet sarea. Teknologia berriak erabiliz, eremu horretan lanean dihardutenen arteko komunikazioa garatzea du helburu.

da. Euskaltegien inguruko informazio zabalera ere aurkitu ahal izango da bertan: ikasle kopuruak, helbideak, harremanetarako datuak, aurrematikula egiteko aukera... Informazio hori guztia, noski, Autonomi Erkidegoko, Nafarroako, Iparraldeko eta diasporako euskaltegien ingurukoa izango da.

bertan daude eta euskaltegienak sartzea da helburua, horrek guztiak irakasteen lana erraztuko duela. Beraz, barne funtzionamendurako tresna izango litzateke sare itxia.

AMAI MUNDIARNO

Habenet sare berria martxan da dagoeneko eta, helduen euskalduntzearen zerbitzurako sortu berri den sare honen inguruko informazioa jasotzeko asmoz, HABEko lehendakari Jokin Azkuekin izan gara.

bitzu eskainiko dira bertan. Irekia izanik, edonork izango du sare horrek eskaintzen dituen zerbitzuez baliatzeko aukera. Besteak beste, euskalduntze alfabetatzea zer den, HABEren helburuak zeintzuk diren eta HABEren eta euskaltegien produktua izango dira salgai. Baina, horretaz gain, Interneten bidez, argitalpenak ikusteko, liburutegira jotzeko eta kontsultak eta maileguak egiteko bidea eskaintzen

Zer eskaintzen du, beraz, sare itxiak?

Sare itxia, dudarik gabe, Habenet duen ahalmenik handiena da eta, laburki azalduz, euskalduntze alfabetatzean gabiltzanon sinergiak aprobetxatzen da. Bi dira nagusiki sare honetan aurki daitezkeen zerbitzuak: kudeaketa administratiboa, batetik, eta maila didaktikoko edukiak biltzen dituen gunea, bestetik. HABEren materialak jada

Zein irizpide hartu dira kontuan bi sareak sortzerakoan?

Sare itxiak hainbat abantaila eskaintzen ditu eta horrek bultzatu gintuen horrela egitera. Itxia izateak bizkortasuna ematen du eta mezuak eta informazioa azkarrago iristen da irizirik beharreko lekura. Sare irekian, berriz, azkartasun hori galdu egiten da, interferentziak egin daitezke eta mezuak beste euskaltegetara iritsiko den segurtasunik ez dago. Bestalde, bada barne funtzionamenduari soilik dagokion hainbat informazio eta, sare itxian egonik, berau ikusteko baimena dutenek soilik eskura dezakete.

Zein helbururekin sortu da Habenet?

Euskalduntze alfabetatzearen esparrua, bere handitasunean, txikia da. Habenet sarearen helburu nagusia euskaltegiak, irakasleak, ikasleak eta HABE lotzea da, hau da, teknologia berriak erabiliz, euren arteko komunikazioa hobetzea. Azken finean, teknologia berriak tresnak dira eta berauek eskaintzen dituguna aprobetxatu nahi dugu. Egun, bakoitza bere txokoa ari gara lanean eta interesgarria denituzogu guztiak elkar-tuko gaituen gune hau izateari, bertan denok integratuz eta bakoitzak berea ekarritz, beti ere, denon onerako izango delakoan eta euskalduntze alfabetatzearen kalitatea helburu izanik. Beraz, helduen euskalduntzerako sare berria da.

Bi sarek osatzen dute Habenet, bata irekia eta bestea itxia. Bai, sare irekia Interneten bidez kaleratuko da eta hainbat zer-



Kurtos Cosbilla

Tresna hau hobetu eta osatze asmorik al duzu?

Bai, noski. Urte honi begira, hiru eronka nagusi ditugu: prestakuntzaren esparruan ikastaro bat antolatuko dugu on-line. Bigarrenik, material bankua osatuz joan nahi dugu, euskaltegien harremanetan jarri eta gutxien artean material didaktiko handia osatuz. Azkenik, autoikaskuntza programa garatzeko asmoa dugu aurten. Hasiera batean, ohiko jardunean dabilen ikasleei laguntza gisa eskainiko zaie, baina, ondoren, kanpoko ikasleei ere eskaintzea pentsatu dugu. Bestalde, web orri bat izateak datuak gaurkotzea, berriak sartzea, e.a. eskatzen du. Beraz, aurrerantzean ere, Habenet hobetu eta osatuko dugun zalan-tzarik ez dago.



Txillardegi

Ni pozik

Oraintxe zabaldu da berria: Manuel Montero U.P.V.ko Errektore 2004ra arte.

Ederki! Monterok merezimendu apartak ditu Euskal Herriko kultur mundua egokiro gidatzeko.

Alde batetik, PSOE eta CCOOko intelektual euskaltzale lagunak ditu bere zerbitzuko.

Bestetik, "Foro" de Ermuu"ren guraso da. Gero, pixkanaka, Savater eta Juaristiren gehiegikeriak ikusita, urrundu egin omen zen "Foro"tik Zorroztasun itzela erakutsi du horretan.

Ea-koa omen da. Eta, hori egia bada, titulu aparta dago: euskaraz ez dakien «ietar» bakarra Errektore berria da. Bapoi!

Klaustroan egon zen adiskide batek, halere, hau esan zidan: paper labur bat irakurri behar izan zuen, eta «politto egieban». Noski! (Bartzelonako Unibertsitateko Errektoreak ez daki katalanez, eta Ljubljankan Unibertsitateko Errektoreak «politto» irakurtzen du eslovenieraz).

Itzultzaile batzuk hautatu ditu, jakina. Eta kasu honetan benetan, «traduttore, traditore». «Hark», sensu stricto.

Nik neuk bederen, beharra egokitzen bazait, gauza bat egingo dut: euskaraz mintzatu-ko naztaria, eta ez dut itzultza-lerik onartuko. Aurreratu egin behar dira. Eta zük zer?

Iñaki Perezek errespetua sortzen zuen nigan. Monterok mespretxu borobila.

Ondo goaz. Bai horixi! Ni oso pozik gelditu naiz gaur goizean. Baietz!

AITZINDARIAK

ELBIRA ZIPITRIA 19 0 6 1 9 8 2



BADU DOZENA ERDI BAT URTE ALGARADA FAXISTAK EUSKALDUNAK ZANPAKATU DITUZELA...



ELBIRAK, EZ BAITA ESPANIARRA, IKASTOLA BIHURTU DU BERE ETXETIKO SALA TIRANIAREN ISILIK...



SI ERES ESPAÑOL HABLA ESPAÑOL AGINTZEN DU GARAILEAK...



HANGO ZOLUA ARIKETAZ MARRAZTEN DA, KANTA AIREAN HEGALDATZEN, ETA SORMENAK GABEZIA GUZTIAK ESTALTZEN DITU.

